



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI PREMIAZKO ARRETA EMATEKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK EUSKADIN, COVID-19K ERAGINDAKO ALERTAREN AURREAN

Osasun publikoko larrialdi-egoeran gaude Covid-19ren ondorioz, eta egoera ahulenean dauden pertsonen prebentzioa eta arreta bermatzeko abian jarritako neurriak berregokitzen behartzen gaitu larrialdi-egoera honek. Hala nola, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eraginpean dauden emakumeei eta haien seme-alabei eskainitako baliabideak eta zerbitzuak.

Beraz, funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei zuzendutako larrialdi-baliabideak eta -zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzea, eta horren barruan sartzen dira premiazko arreta- eta harrera-zerbitzuak.

Bizitzen ari garen salbuespen-egoera dela eta, baliabideak eta zerbitzuak beharrezko egokitzapenekin mantenduko dira.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZERBITZUEN ETA BALIABIDEEN EGOERA EAEn

EUSKO JAURLARITZA

ERAKUNDEAK / SAILAK	ZERBITZUAK / BALIABIDEAK	EGOERA (2020/04/15)
EMAKUNDE	. Koordinazioa eta deribazioa	Indarkeria ezabatzeko arloko langile guztiak jardunean daude. Arreta: emakunde.zuzendaritza@euskadi.eus / Tel: 945 016702
SEGURTASUNA	. Babesa (GI ertzainak, Bortxa telefonoa, Segurtasun pribatua)	Operatibo guztiak aktibo daude
	. Larrialdietarako Telefonoa 112 . 112-SOS Deiak App	https://www.euskadi.eus/112-sos-deiak-app-a/web01-a2bapps/eu/ App honetan bi botoi more daude: bata genero-indarkeria eta bestea sexu-erasoak salatzen, eta aplikazioaren hasierako pantailan instalatu daitezke.
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	. Indarkeriaren emakume-biktimentzako Telefono bidezko Arreta zerbitzua 24ordu - SATEVI: 900 840 111	24 ordutan aktibo, 365 egun. Emakume biktimei, hurbilekoei eta profesionalei arreta emateko zerbitzu espezializatua, diziplina anitzeko talde batek emana.
	. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa	Laguntza eskatzeko bide telematikoa zabalik. Biktimen deien arreta ziurtatuta dago, informazioa eskatuta. Kredentzial elektronikorik ez dutenek dokumentazioa helbide honetara bidali dezakete: savvg@euskadi.eus
	. Zeuk Esan 116 111 Telefonoa	Haurrei eta nerabeei arreta eta laguntza emateko zerbitzua. Beste baliabide batzuk: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hautzarorako-nerabegarorako-laguntza-telefonoa/hasiera/
	. Genero indarkeriaren biktimentzako DBE (LANBIDE)	Eskatzaileei arreta telefonikoa eta telematikoa: 945 160600 / 630 305452



LANA ETA JUSTIZIA	. Biktimari arreta emateko zerbitzua BAZ . Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arlo judizialean laguntza integrala ematea - ZUREKIN	Lurralde historiko bakoitzeko talde bat, 9:00etatik 14:00etara. — Vitoria-Gasteiz: 900 180414 - 945 004895 / Email: sav01-1@justizia.eus — Bilbao: Tel: 900 400028 – 94 4016487 / Email: sav48-1@justizia.eus — Donostia: Tel: 900 100928 – 943 000768 / Email: sav20-1@justizia.eus
	. Emakumeen aurkako Indarkerian espezializatutako Epaitegiak	— Bilboko barruti judiziala. — Donostia eta Gasteizko barruti judizialak. — Amurrio, Azpeitia eta Balmasedako barruti judizialak: Jarduketa guztiak guardia-zerbitzuak izapidetuko ditu, indarkeria barne. — Beste barruti judizialak: Kudeaketa/izapide- eta laguntza-langileak daude. Jarduera guztiei zerbitzua emango diete, indarkeria barne.
	. Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak (ABIU)	Psikologo eta gizarte-langile guztiak eskuragarri daude hiru lurralde historikoetan. AMEEen lurralde-zuzendariordetzetatik aktibatzen dira.
	. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE)	— Arabako Klinika-zerbitzuak: 945 004892, ivmlaraba@justizia.eus — Bizkaiko Klinika-zerbitzuak: 94 4016484, ivmlbizkaia@justizia.eus — Gipuzkoako Klinika-zerbitzuak: 943 004350, ivmlgipuzkoa@justizia.eus
	. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako doako laguntza juridikoa (Guardia txanda, 24 ordu)	Salaketa jarri eta/edo babes-agindua eskatu aurreko berehalako arreta juridikoa, eta ofiziozko txandari eutsiko zaio epaiketa azkarretarako eta babes-aginduak izapidetzeko.
	. Familia Elkarguneak	Etendako jarduera. Ikastetxeen neurriekin parekatu dira, adingabeak ez ibiltzeko. Familiarikiko komunikazio-neurriak artikulatu dira. Harremanetarako helbidea: epenal@euskadi.eus
INGURUMENA, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	. Baremazio gehigarria alokairuko BOEetan . Alokairuko etxebizitzak zuzenean esleitzea kasu larrietan	Telefono bidezko arreta: 945 016360. Genero-indarkeriaren emakume-biktimek puntuazio handiagoa dute BOEak errentamendu-erregimenean esleitzeko baremazioan. Harrera-baliabide batean badaude, errekurtsoren arduradunaren eskaeraren bidez, zuzenean eskura dezakete errentamendu-erregimeneko etxebizitza bat.



FORU ALDUNDIAK

ZERBITZUAK/BALIABIDEAK (2020/04/15)	Bizkaiko Foru Aldundia Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua Tel: 94 4025050 (24ordu)	Arabako Foru Aldundia violenciadegenere@araba.eus Tel: 699 566399 / 945 151015	Gipuzkoako Foru Aldundia SFCUS (Gizarte Larrialdiak Koordinatzeko Foru Zerbitzua) sfus@gipuzkoa.eus Tel: 943 224411 (8:00-22:00) Tel: 112 (22:00-8:00)
Biktima diren emakumeentzako berehalako harrera-zerbitzuak	Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin. Larrialdiko egoitza-baliabide bat jarri da, 20 plaza dituen, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat eta haien seme-alabentzat eta haien ardurapean dauden mendeko pertsonentzat.	Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin. Berehalako Harrera Zentrora oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez sartzen da, eta ordutegitik kanpo, Gizarte Larrialdietako Zerbitzuaren bidez: 945 134444.	Aktiboak, 365 egun, 24 ordu, aurrez aurreko arreta segurtasun-neurrietara egokituta. Berehalako Harrera Zentrora oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez sartzen da, eta ordutegitik kanpo, Gizarte Larrialdietako Zerbitzuaren bidez. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako kontaktu guztiak zabalik.
Biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak	Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin.	Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin. Egonaldi Ertaineko Harrera Zentrora eta pisuetara oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez sartzen da, eta ordutegitik kanpo, gizarte-larrialdietako zerbitzuaren bidez: 945 134444.	Egonaldi ertain/luzeko harrera eta autonomia-pisu aktiboak, 365 egun 24 orduz, aurrez aurreko arreta segurtasun-neurriekin bat etorriz. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako kontaktu guztiak zabalik.



<p>Tratu txarren eta sexu-erasoaren egoerei buruzko aholkularitza juridikoko zerbitzua</p>	<p>Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin. Erabiltzaileei arreta telematikoa eta telefonikoa emango zaie.</p>	<p>Aktiboak. Telefono bidezko arreta ematen ari da, aldez aurretik hitzordua eskatuta: IFBS (Hegoak):</p> <ul style="list-style-type: none"> — 945 151015 (Vitoria-Gasteiz) — 945 891161 (Amurrio) — 94 4034850 (Laudio) 	<p>Prozesu aurreko aholkularitza juridikoa familia-zuzenbidearen eta zigor-zuzenbidearen gaietan: arreta telematikoa eta/edo telefonikoa/bideokonferentzia indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. Eskabide berriak larrialdietako foru teknikariekin koordinatuta. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako kontaktu guztiak zabalik.</p>
<p>Tratu txarren eta sexu-erasoaren egoerarako laguntza psikologikoko zerbitzua</p>	<p>Aktiboak, baina osasun-larrialdiko egoerarekin bat datozen salbuespenetzko neurriekin. Telefonoz, Skype bidez eta posta elektronikoz egiten dute arreta. Esku-hartze psikologiko espezifikoak egiten dira larrialdi-zentroetan, teknikari arduradunek eskatuta. Aurrez aurreko arreta behar duten esku-hartze atzerazinak egiten dira.</p>	<p>Aktiboak. Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta:</p> <ul style="list-style-type: none"> — Telefono bidezko arreta zabalik dago Gasteizko biktimen arretarako bulegotik, aldez aurretik hitzordua eskatuta IFBSn (Hegoak): 945 151015. — Telefono bidezko arreta eskaintzen da Amurrio, Laudio, Guardia, Oion eta Aguraingo bulegoetan. 	<p>Arreta telematikoa edota telefono bidezkoa/bideokonferentzia indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat eta haien ardurapeko adingabe edo mendekoentzat. Eskabide berriak premiazko esleipeneko foru teknikariekin koordinatuta. Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako kontaktu guztiak zabalik.</p>